138. zenbakia - 2014ko maiatza

artzape

GETARIARRON TOPAGUNEA

SAN PRUDENTZIOKO JAIAK

] ARTZAPEREN ALDEKO IX. MUS TXAPELKETA

BALENCIAGA MUSEOKO ZUZENDARI BERRIA]

Uxoa Irigoien nekaezina

SIZ
Servicios Informáticos Zarautz
Venta de equipos informáticos
Mantenimiento
Academia de informática
Diseño de páginas web
Urdaneta, 2 bajo · 20800 Zarautz

OSTOLAZA EDARITEGIA
kaxuelltak eta plater konbinatuak
Elkano, 33 Tel.: 943 140 214

Saiazgetaria
BILERA GELA DAUKAGU
Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa
943 140 143
943 140 345
info@saiazgetaria.com
www.saiazgetaria.com

Astillero
Erretegia
Pintura especialistea
kalea, 1
20808 GETARIA Tel.: 943 14 04 12

OSTOLAZA TALLERRA
Taller mekanikoa.
Soldadura eta kaldererla.
Txoritokiko Industri gunea, 20
Intxa, pentze nig
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110 / 675 707 200

SALANORT
SALA NORT
CONSERVAS ARTESANAS DE GETARIA
%15eko deskontua "Octavillo" etxeko 6 antxoa lata erosteau.
www.salanort.com

MAISOR
Kantauriko esperientzia
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OLIBINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

BABEXA
Getariako dendari elkartea

Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegado Nº 5158/158
Proiektuak eta erreformak
Obra zuzendaritza
Obra eta jardueren-baimenak
Ceremio koordinaketa
Kristobal Balentzizaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbiibarbia@hotmail.es

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo gaxoen aukera
Kale Nagusia, 24 GETARIA Tel.: 943 140 800

POLITENA
GURE BEREZITASUNAK:
• Aste egunean:
Eguneko Menua
• Jai egun eta Asteburuetan:
Luxuzko Pintxoak,
Bokatak eta Raciona.
• Eramateko eskaerak:
• Wi-Fi zerbitzua.
GETARIA
Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

Aranola
PVC eta Aluminiozko lanak
Tel.: 649 95 15 08 / 649 97 30 41
Fax.: 943 14 02 86
Aranola

KAIA - KAIPE JATETXEA
General Arnao, 4 · 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tlfno. 943 14 05 00 • fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

HARRALDE
GETARIA NAGUSIA,17 ☎ 14 07 04

Doinua: *Betsuak jarri dizkat.*

Bezperan Euskal Jaia
ze egun handia
askok biharamunez
pasaz igandia
herriak zahartzaroai
hor omenaldia

artzape

138. zenbakia

2014ko maiatza

]3/Aurkibidea

]4/Gutunak

]5/Txapakalezka - Artzapetik begira

]6 -7/Zer berri - Bi hitzetan

]8-11/Elkarrizketa: Uxoa Irigoien

]12-13/Argazki-txokoa: Antxua eta Arrantzale egunak

]14-15/Erreportajea: San Prudentzioko jaiak

]16/ Harritarten txutxupeka

]17/Gaztetxia

]18/Historiaren katebegiak

]19/Herriko toponimia - Literatur txokoa

]20/Iritzia

]21/Elan- Euskadi

]22/Agenda

]23/Hari tartian - Zorion agurrak - Guardiak - Telefono interesgarriak

artzape
Eskualtxeta kulturgunea
Krixketaneko Iturrigaina

Tel.: 943 00 05 48
artzape@topagunea.com

Gure Txeru Elkartea

[argitaratzailea] Gure Txeru Elkartea [koordinazioa] Izaskun Urbieta [maketazioa] Monika Uzkiza [lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Izaskun Larrañaga, Nerea Kamio, Josune Urresti, Jon Ander de la Hoz , Iker Alberdi, Alain Inza, Unai Mateos, Haritz Esteban, Amaia Iribar, Amets Etxabe, Aitor Irigoien, Beñat Gereka, Mikel Mugika, Getaiko Gaztetxea, Iturzaeta herri eskola, Elan-Euskadi GKE, Markos Aizpurua, Andres Alberdi eta David Zapirain. [kolaboratzaileak] Xabi Insausti.
[argazkiak] Artzape [publizitatea] Artzape [inprimaketa] Gertu [tirada] 1170 ale
[lege gordailua] SS-504/01 [ISSN] 1578-469X

Getariako Udalak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

] gutunak

Zure gutuna Artzapen argitaratzea nahi baduzu, Txeruko postontzian utzi, Eskualtxetara ekarri edo *artzape@topagunea.com* helbidera bidali zure izen-abizenekin. Gutunak gehienez 200 hitz izan beharko ditu eta luzeagoak direnak mozteko eskubidea izango du Artzapek. Ez dugu testu iraingarririk onartuko eta Artzapek ez du bere gain hartuko argitaratzen diren iritzien gaineko erantzukizunik.

GED taldearen eskerrak parte hartzaileei:

Ekainaren 8a gerturatzen doan heinean, Getariako Gure Esku Dago Taldeak antolaturiko hainbat ekintza izan dugu herrian.

Maiatzaren 3an burututako KANTUJIRAn, hainbat herritarrek hartu zuen parte ilunabarrean kaleak jai giroan alaituz. Maiatzaren 10ean berriz, goizez GURE ESKU LANAK tailerra izan genuen umeentzat, eta MUS TXAPELKETA arratsaldean. Bestalde, astebururo, Gure Esku Dago-ko mahaia jarri da Txeru aurrean metro eta kamisetekin.

Getariako GED taldeak eskerrak helarazi nahi dizkie antolaturiko ekintzetan parte hartu eta lagundu gaituzuen guztiei. Bide batez, Getariar orori esan, ekainaren 8an egingo den giza katean bere bi eskuak eskaini nahi dituen edonork aukera daukala asteburuan Txeru aurrean jartzen dugun mahaian izena emateko.

400. BAIETZ!!! Baikorregiak izan ginela pentsatuko du batek baino gehiagok. Baina ez da izan edonola botatako zenbaki bat; alderantziz. Getariako herriaren izaera ikusita lortu zitekeen kopuru bat iruditu zitzaigun. Getarian den potentziala aktibatu eta mobilizatu daitekeela pentsatzen dugu.

Lerro hauek idazten ari garenean 211 lagunek eman dute bere izena. Nahiko genuke gehiago izatea, eta gure ahalegin guztiak egingo ditugu oraindik ; apustuari heldu egiten diogu!! Dena dela, Erabakitze Eskubidearen bidea ez da ekainaren 8an amaitzen. Aldarrikatzetik GAUZATZE-rako bidea hasiko da ekainaren 9an. Nola? ekainaren 21ean bertan, Bilbon elkartuko garen batzar erraldoian hasiko gara erabakitzen. Getariarrok badugu zer esana! Guztiok gaude gonbidatuta.

AUTOBUS-etan izena ematea: trafikoa arintzeko, AUTOBUSETAN JOATEA KOMENI dela aholkatu digute antolatzaileek. Giza kate osoan lehentasuna izango dute autobusek, eta 47. km an bertan utziko gaituzte. Kotxez joanez gero, ezin digute ziurtatu 47. km-tik gertu aparkatzea. **IZENA EMATEKO**, Harritarte-n astean zehar, eta jarriko dugun mahaian asteburutan.

EKAINAREN 8 an BADAUKAGU PLANA!

47. kilometroa kolorez, musikaz, eta alaitasunez betetzera!

GURE ESKU DAGO Getaria.

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK
IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090951

ITXASPE
TABERNA

txapakalezka

Aitor Irigoien, Beñat Gereka eta Mikel Mugika

Denboraren makinan egindako bidaietan, hautsez beteriko kutxa zahar bat topatu genuen kantoi izkinan. Barnean, gure herriko beldurrezko gertakarien kontakizunak gordetzen zituen. Aspaldi itxita egon ostean, hilabete honetan, berriro ausartu gara kutxa zaharra irekitzera…

2) "Fabiolaneko palaziyua" eta San Juanak

A ze sorpresa telebistako Laugarren Milurtekoa saioan Zarauzko hondartzako *Gustav* ontziaren arrastoei buruzko misterioa agertu zenean! Hori ikusita, eta beti *auzolagun tautalak* baino bat gehiago garela erakusteko ohitura jarraituz, gure herrian ditugun kasu eta leku misteriotsuak bilatzen jarri gara. Eta baita topatu ere! Izan ere, zein ez da akordatzen *Fabiolaneko palaziyo* zaharraz, eta hango kontu eta misterioez? San Juan eguna (eta gaua) magikoa eta berezia bada berez, zer esanik ez Fabiola palazio hartan… Gertaera arraroak aste batzuk lehenago hasten ziren, gaztetxo ia denok herrian bueltaka hasten ginenean, ezinegonak jota, ahalik eta kartoi eta egur gehien bildu eta goiko kalera eramanez…

Ausartenak, ordea, Fabiola palaziora sartzen ziren, bizitza arriskuan jarriz: iluntasuna, itzalak, pertsiana artetik sartzen ziren izpi apurrak, hautsa, zorua zapaltzean egurrak egiten zuen *"kras-kras!"*zarata intentsua… Alfred Hitchcock-en pelikula bat zirudien hark! Eta palazio ingurua ere ez zen nolanahikoa: Philipe Kuerten bizi zen etxe txuria, *Bronx* auzokoa zirudien saskibaloi pista (grafitiak soilik falta ziren), sarea beti erorita zegoen teniseko pista eta *Iberdueroko etxetxoa*…
Palazioko goiko pisuraino igo eta ondoren, koltxoneta bati helduta, leihotik behera hegan salto (edo erori?) zuenik ere bazen, Andres Ferrerori behin pasa zitzaion bezala… Kartoiak ipurdi azpian jarrita, ordu luzez zelaian behera lasterketak egiten ere ibiltzen ginen asko, Kepler maisua, bere ahots lodiaz, errietaka zebilen bitartean…

Hori bai, ekainaren 24 egun haundirako izugarrizko "montoia" osatuta eta dena prest izaten zen urtero: Austin Joseph-en gidaritzapean gaueko danborradak erritua hasten zuen, Xegun-ek sua piztu eta gasolina bota eta bota, izugarrizko sugarra sortzen zuen… tontorreko pertsonaiak kiskaliz! *Freezer, Galindo, Goenkaleko Mikel Tximas eta Isaias*… denak ere inpernuko txikitoa baino gaiztoagoak, eta Fabiola ondoko sutan erreak! Eskerrak hurrengo egunean, aurreko gaueko beldurra gainditzeko txoixo egosia eta txokolate beroak lagunduta, umeen jolasak egoten ziren… azkenerako denok buruz genekizkien kanta mitiko haien doinupean!

Baina, zer gertatu zen sutan erretako haien espirituekin? Ez ote dute jarraituko Fabiola palazio inguruan bueltaka, dantzan, gaiztakeriatan? Agian horrek azal dezake superMuseoan gertatu den guztia, eta bertako kargudunen joan etorria... Baina hori, are eta beldurgarriagoa den beste istorio bat da, hurrengo baterako utziko duguna…

**** Oharra: Benetako gertakarietan oinarritzen da testua. Hainbat izen aldatu egin ditugu, protagonisten anonimotasuna mantendu nahian.*

artzapetik begira

Xabi Insausti

Balenciaga eta Euskal Herria

Sartrek nahi zuen behin Euskal Herrira etortzea, "Burgosen epaiketa"ko kondenaren aurka manifestalde batetara. Egun batzuk lehenago, afaria antolatu zuen Picassok Pariseko bere etxean, eta hor zen Sartre eta Beauvoirrekin Balenciaga ere besteak beste. Sartrek aprobetxatu nahi zuen aukera, Balenciagari Euskal Herriko egoeraren buruz galdetzeko. Baina Picassok bestera eraman zuen haria.

Picassok: - Aspaldiko entzun dudan txiste onena kontatuko dizuet: Zoroetxe batean zoro batek paretaren aurka zeukan belarria, zerbait entzutelakoan. Begile batek hor ikusi eta galdetu zion zoroari zertaz ari zen. Horrek isiltzeko agindu zion, eta berak belarria paretan jartzera gonbidatu zion. Horrela egin zuen begileak, eta denboratxo pixkat horrela egon eta gero, ezer ez zuen entzuten esan zion. Ba, horrela bizitza osoa, erantzun zion zoroak.

Denak barre egin eta gero, Balenciagak txistearen mamia ulertu nahi zuen. "Argi dago", esan zuen Sartrek. "Begilearentzat zoroak beti zoro eta kitto. Zer nahi duzu ba?. Baina zoroarentzat gauza oso ezberdina da. Zoroarentzat, begilea zen ezer ulertu ez zuena. Jendea beti dabil belarriarekin paretan, zerbait entzutelakoan. Baina benetan ezin dute ezer entzun eta horrela pasatzen dute bizitza osoa. Zoroek aldiz beti zerbait entzuten dute". "Casandraren sindromea", gaineratu zuen Beauvoirrek: "Emakumeak, zoroak, homosexualak, ijitoak, …" Juduak, poetak, komunistak" gehitu zuen Picassok. "Baina bizitzatik baztertzen dena, beti beste forma batean bizitzara bueltatzen dela, Freudek dixit".

Tertulia bukatu zen eta Sartrek ez zuen aukerarik aurkitu, Balenciagari Euskal Herriari buruz galdetzeko.

Artzaperen aldeko IX. Mus Txapelketa

Ekainaren 6an, ostirala, azken urteotan egin dugun moduan, Getariako Mus Txapelketa jokatuko da berdura plazan. Bertan irabazten dirua Artzaperen alde izango eta antolaketan Getariako Udalak lagunduko digu.

Izen ematea egun bertan izango da, arratsaldeko 20:00etatik aurrera, eta Txapelketaren hasiera 21:30ean izango da.

1.saria: 200€, txapela eta txakolina.
2. saria: 100€ eta txakolina.
3, 4, 5, 6, 7 eta 8. sariak: Giroa, Taxko, Mahasti, Harralde, Getaka eta Amona Maria tabernek eskainitako afari eta hamaiketakoak izango dira. Parte hartzen dutenen artean zozketa bat egingo da.

Taberna ere jarriko dugu, beraz, musean jokatu ez arren zerbait hartzera animatu nahi zaituztegu.

Miren Vives da Balenciaga Museoko zuzendari berria

Ia lau hilabetez egon da Balenciaga Museoa zuzendaririk gabe, baina orain bi aste, Cristobal Balenciaga Fundazioko kideek, zeregin hau izango duen pertsona berria aurkeztu dute. Urtarrilaren 31ean, Javier Gonzalez Duranak bere kargua utzi zuen, eta bere lekukoa emakume batek hartu du: Miren Vivesek.

Donostiarra eta Ekonomia eta Enpresa Zientzietan Lizentziatua, orain arte, kudeaketa eta kultur arloa uztartuz egin du lan. Bere hitzetan, "Museo garrantzitsua da Cristobal Balenciaga Museoa, eta itxaropen handiak ditugu proiektuan. Aurrerantzean itxaropen horiek kudeatzea da nire lana. Balenciaga Museoa balioan jarri eta indartu egin behar da" adierazi zuen aurkezpenean.

Bere iritziz, etorkizun oparoa du museoak, eta horretarako, nazioartean presentzia indartzea da xedeetako bat. Ildo horretatik, museoko prozesu ezberdinak zuzendu nahi ditu, eta amaitzeko, gizartearen eta museoaren arteko loturak landu. "Orain arte elkarlana gure ezaugarria izan da, baina moda eta kultur arloko eragileekin, herriarekin eta beste erakunde eta eragileekin elkarlana indartu egin behar dugu aurrerantzean ere" amaitu zuen.

Igor Uria bildumen zuzendaria, Ikerne Badiola Kultura diputatua, Miren Vives museoko zuzendaria, Joxean Muñoz Eusko Jaurlaritzako Kulturaa sailburuordea eta Nika Lertxundi Getariako alkatea. *Argazkia: Miriam Tamayo

Apirileko otarra

Antxua egunean Artzaperen aldeko rifak saltzen egon ginen, eta irabazlea Aloña Zabaleta izan zen.

Eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartu zuten guztiei, eta Salanortekoei otarra oparitzeagatik.

Zorionak Aloña!

Abesbatza Errioxan

Joan den maiatzaren 10ean Getariako Abesbatzak, bi urtetik behin egiten duen irteera egin zuen Errioxa aldera. Bertan, ardo onak dastatu zituzten Moreda herrian, ondo bazkaldu Brionesen, eta Gasteizen amaitu zuten eguna hango baztarrak ikusiz.

Nahi zutenak bere bikotearekin joan ziren, denera berrogeita bat lagun, eta giro ezin hobean pasa zuten eguna.

Hau dena Luis Mari Kamioren antolaketari esker izan zen.

Orain Zahartzaroari Omenaldirako, festetarako, eta lehorreratzerako hari dira buru-belarri prestatzen.

Unai Gerekak eta Imanol Barruetabeñak Europako eta Munduko Txapelketetan jokatzeko txartela lortu dute

Espainiako Maratoi Txapelketan urrezko domina lortu zuten K2-a osatzen duten jubenilek.

Maiatzaren bigarren asteburuan jokatu zen Badajozen Espainiako Maratoi txapelketa, eta bertan, txapeldun izan ziren Unai Geraka getariarra, eta lehiarako bere bikotea osatzen duen Imanol Barruetabeña zumaiarra. Aurretik, Euskadiko txapelketan ere garaile atera ziren, baina Espainiako txapelketan, erakustaldia eman zuten. Bigarren sailkatuari, hain zuzen, 47 segundoko abantaila atera zien.

Gainera, garaipen honek, beste sari potolo bat eman die: Europako eta Munduko Txapelketetan lehiatzeko txartela. Europako Txapelketa Eslovakian jokatuko da ekainaren 13tik 15era, eta Mundukoa berriz, Oklahoman, AEBetan. Orain, bidaietarako dirua lortzea du helburu Zumaiako Itxas Gain taldeak.

Unai Gereka eta Imanol Barruetabeña helmugara iritsita, garaipena ospatzen.

Getariako herriak, eta batez ere Unaien lagunek, ongietorri berezia eman zieten.

Cristina Enea Fundazioaren Iraunkortasunaren Behatokiak "Gipuzkoako etxeetan erabilitako olioaren bilketaren inguruko pertzepzio-ikerketa" argitaratu berri du.

Ikerketa honek, etxean erabilitako olioaren bilketa selektiboaren arazoaren inguruan gipuzkoarrek duten pertzepzioa aztertzen du. Honako helburuak lortu nahi izan dira:

- Etxean erabilitako olioaren aurrean herritarrek duten jarrera
- Soberako olioaren arazoaren aurrean dagoen pertzepzio soziala
- Olioaren bilketa selektiboaren inguruan populazioak duen ezagutza
- Olio-bilketarako politiken balorazioa

Landa-lana 2013ko martxoa eta apirila bitartean egin zen inkesta presentzial egituratuta, eta Gipuzkoa osoko udalerri guztietan.

Ondorio nagusiak hauek dira:

1. Familien %76,86 inguruk biltzen dute selektiboki olioa.
2. Olioaren bilketa selektiborako edukiontzien batez besteko distantzia 300 metro ingurukoa da.
3. Plastikozko ontziak dira bilketa selektiborako gehien erabiltzen direnak.
4. Etxeko soberako olioa biltzearen garrantziaren inguruko pertzepzioa altua da, %79,35ekoa.
5. Horren garrantzia handia ematerako arrazoiak ingurumenaren babesarekin lotutakoak dira.
6. Olioaren bilketa selektiboaren inguruko ezagutzari dagokionez, %51k uste dute ondo informatuak daudela eta %48k informazio gehiago eskatzen dute.
7. %77k uste dute bilketa selektiborako sistema erosoa dela; hala ere, %12,44arentzat ez da erosoa: gertutasuna, erosotasun handiagoa, garbiketa gehiago eta ordutegi hobea eskatzen dute.
8. Olioaren balorizazio-prozesua eta tratamendua ezezaguna da herritarren gehiengoarentzat; aldiz, askoz ere ezagunagoa da gero egiten den berrerabilpena.

Etxeko soberako olioaren bilketa selektiboaren erantzukizuna zein administraziori dagokion gehiengoak daki. %54k uste dute ezarritako politika positiboa dela eta %33 kritiko agertzen da. Informazio gehiago eskatzen dute.

Informazioa gehiago:
Tel. 943 896024 / www.cristinaenea.org
maizpuru@getaria.org

Uxoa Irigoien

“Nire sekretua, daukadan kasta atera, eta lasterketak ahalik eta ondoen egitera ateratzea da”

Hamaika herri lasterketetan parte hartzetik, mendi lasterketetara jauzi egin du Uxoa Irigoienek. Aurten arte, errepidea izan du bere oinen bidelagun, baina dagoeneko, aldapa gorabeheratsuek laguntzen diote bere ibilbidean. Jaisten ikasi behar duela aipatu du, aldapa gorek, ordea, ez diela beldurrik ematen. Horren adibide da bere azken lorpena: Mendi Lasterketetako Euskal Selekzioko kide izatea. Malda handiek ere, arrakastarako bidea erakusten duten seinale!

Korrika hasi zinenean espero al zenuen honaino iristea?
Ez, inola ere ez. Gogoratzen naiz, orduan gelakide nuen batekin Zarauzko Biko lasterketan atera nintzenean, orain urte batzuk. Nire lehen aldia zen, eta parte hartzeagatik atera nintzen, besterik gabe. Gero gustatu, eta nire kasa, herri lasterketetan hasi nintzen. Baina hortik mendi lasterketetara jauzi egitea, eta selekzioaren deia jasotzea… Beno, ez da pentsatu ere! Oso pozik nago.

Esan duzun bezala, mendira iritsi aurretik, errepidean ibili zara.
Bai, hala da. Biko lasterketa hartatik, Behobia-Donostia egitera pasa nintzen. Eta noski, lasterketa hori prestatzeko, herri lasterketa motzak egiten ibili naiz urte hauetan. Baina orain bi urte, Pagoetako mendi lasterketa egin nuen lehen aldiz. Handik hona, tarteka egin izan ditut horrelako karrerak, baina aurten hartu diot mota honetako lasterketei gustua, eta aurten hasi naiz, beraz, buru belarri mendian.

Beraz, orain, mendi lasterketetara zuzendu zara?
Bai. Entrenamenduak ere ez dira berdinak mendira edo errepidera begira, eta orain, mendiko lasterketetarako prestatzen naiz. Errepidea ere maite dut, baina mendian gehiago disfrutatzen dudala esan daiteke.

Herri lasterketak alde batera utzi dituzu?
Momentuan bai. Baina mendiko denboraldia amaitzen denean, egingo ditut. Behobia-Donostiarako izen emanda nago, adibidez. Eta Zarauzko Biko lasterketa, Azpeitikoa… anaiarekin edo mutilarekin egiten jarraituko ditudan lasterketak dira.
Azkenean, mendi lasterketen denboraldia ez da hain luzea, eta behin amaituta, besteak egiteko moduan egongo naiz.

Aldaketa, bistan da, hoberako egin duzula. Denbora gutxian, hainbat lasterketa irabazi dituzu, eta selekziotik ere deia jaso duzu.
Egia esan, bai. Uste baino hobeto moldatzen naiz. Aldapak igotzeko arazo handirik ez dut, behera gehiago kostatzen zait, adibidez. Baina pixkanaka ikasten ari naiz, nire buruarekin konfiantza handi tzen ari zait, eta beldurrak uxatzen ari zaizkit. Gero eta lasterketa gehiago egin, hobetzen joango naiz.

Izan ere, mendi lasterketa batetik bestera ezberdintasun handiak egongo dira, ezta?
Bai. Kilometroetan igartzen da. Batzuk luzeagoak dira, baina ezberdintasun nagusiena desnibelean dago. Aldapen mailak, batetik bestera, asko aldatzen dira.

> **“Errepidea ere maite dut, baina mendian gehiago disfrutatzen dudala esan daiteke”**

Eta, non entrenatzen duzu?
Ez dut mendi askorik ukitzen egia esan. Zumaia aldera joaten naiz Askizutik, gero han mendi bidean sartzen naiz eta Zarautz aldera ere korrika egiten dut. Garate gainetik, Santa Barbara aldera. Batez ere, asteburuetan joaten naiz mendira. Ezagun batzuekin, eskursio moduko batzuk antolatzen ditugu, eta horrela entrenatzen dut. Baina errepidea ere ez dut alde batera utzi entrenatzeko.

Lasterketa batera joan aurretik, egin behar duzun ibilbidea ikasten duzu?
Ba nik ez, egia esan. Ibilbidearen perfila bidaltzen digute, eta pixka bat begiratzen dut ikusteko non dauden aldaparik gogorrenak, jakiteko non eman ahal duzun guztia, eta non lasaitu. Garrantzitsua da begiratzea. Baina ibilbidea ezagutu gabe ere egin izan dut. Hala ere, komeni da lanketa hori egitea aurretik.

Ze ezberdintasun daude herri lasterketa eta mendikoaren artean?
Prestaketa aldetik, mendi lasterketak, mendian bertan entrenatzea eskatzen dizu, jakina. Nik batez ere aldapak egiten ditut, bai gora eta bai behera. Esfortzu gehiago suposatzen dizu, eta bihotza ohitu egin behar da horretara. Gainera, motibazio handiagoa ematen dit mendiak. Tontorrera iristea, sentsazio bikaina da. Eta ahaztu gabe, jendearen animoak. Bi kasuetan eskertzen dira, baina mendian are gehiago, indar gehiago ematen dizu. Eta aipatu behar dut, Euskal Herrian animoak izugarriak direla. Espainia mailan, Malagan izan naiz korrika egiten, eta han, apenas zegoen jendea animatzen. Ez dago kultura hori.

Eboluzionatu duzula nabarmena da. Non dago sekretua?
Ez dakit. Barrutik ateratzen zait. Daukadan kasta ateratzen dut, eta ahalik eta ondoen egitera joaten naiz. Hala ere, oraindik oso urduri ibiltzen naiz. Nerbioak dantzan. Eta edozein lasterketetan, gainera; bai Espainia mailako lasterketa batean, edo herriko San Silbestren. (Barrez). Eta norberak bere buruari ere presioa jartzen dio, eta hori ere ez da ona nerbioentzat.
Hala ere, selekziotik ez didate inongo presio edo marka zehatz bat egiteko esan. Disfrutatzen jarraitzeko, eta hori egingo dut.

Martxoa hasieran izugarrizko lasterketa bikainak egin zenituen. Hortik dator selekzioaren deia, ezta?
Bai. Donostia-Hondarribia mendi lasterketa irabazi nuen lehenengo.
Gero, Orioko lasterketan parte hartu nuen, eta han ere lehen postuan iritsi nintzen. Jarraian, Urnietako mendi lasterketa egin nuen, bigarren iritsiz. Emaitza oso onak izan ziren, eta ea selekzioanparte hartzea gustatuko zitzaidan galdetu zidaten.

Nola jaso zenuen berria?
Ilusio askorekin, imajinatu. Oso talde jatorra da, euskaldunak, umiltasunez jokatzen dutenak, jende naturala. Beso zabalik hartu didate, guztiek.

Zertara konprometitu zara selekzioarekin?
Beraiek, Espainiako Kopan sartzen diren lasterketetan parte hartzeko nahi didate. Guztira lau-bost bat lasterketa dira, eta oraingoz bakarra egin dut, Malagan. Hurrengoa ekainaren 1ean dut, Isaban. Gero Katalunian izango dut beste bat, ondoren uztailan Zumaiako Flysch lasterketa, eta azkena, Lanzaroten.

Flysch-aren lasterketan arantza kendu nahi duzu.
Hala da. Iaz oso gaizki pasa nuen karrera horretan. Bero izugarria egin zuen, eta orokorrean, gogoratzen naiz, parte hartzaile guztiek ere ez zutela ongi pasa. Horregatik, aurten gogotsu nago eta espero dut hobeto ibiltzea. Alde batetik, prestatuago nagoelako, eta beste aldetik, buruan dudan sentsazio txar hura ezabatzeko irrikaz nagoelako.

Entrenamendu prestaketak izango dituzu.
Bai, noski. Taldean prestatzaile fisikoa daukagu, Jokin Lizeaga. Korrikalaria ere bada, eta berak egiten dizkigu entrenamendu planning-ak. Gure denbora librearen arabera, eta ditugun helburuen arabera antolatzen dizkigu entrenamendu saioak.

Zein da zure helburua, beraz?
Aizkorriko mendi maratoia bukatzea izan da helburuetako bat. Horretaz gain, pixkanaka, mundu hau eta lasterketa hauek ezagutzea da nire nahia.

Lehen aipatu bezala, apirilaren bukaeran, selekzioarekin debuta egin zenuen, Malagan. Zer moduzko esperientzia izan zen?
Oso ona. Urduri joan nintzen, baina egia esan, hemengo lasterketetan baino lasaiago atera nintzen. Beharbada, bidaia osoa taldekideekin egin nuelako, astebarua bertan pasa genuelako, elkarrekin bazkaldu eta afaldu genuelako… Etxean, urduriago jartzen naiz, bai.

Eta, zein da, orain arte egin dituzun karrera guztietatik kuttunena?
Zaila egiten zait bat aukeratzea, izan ere, askotan gozatu dut. Baina Urnietako mendi lasterketa ederra izan zen. Bertako giroa, eguraldi ona, jende asko animatzen… Gainera hortik aurrera egin nintzen selekzioko parte, eta beraz, kariño berezia diot.
Baina, auzoetan egiten diren lasterketa txikiak ere maite ditut, Akuakoa adibidez. Herri edo auzo-giro ederra izaten da, lasterketa goxoak dira; korrikalariak goxatuta ateratzen gara.

Biko lasterketa ere badakit, berezia dela zuretzat.
Bai, jakina. Iaz, anaiarekin, 2. postuan bukatu nuen Azpeitian. Lehendabiziko aldia zen podiuma egiten genuela biok batera. Une berezia izan zen biontzat. Horretaz gain, eta iaz berriro ere, baina oraingoan mutilarekin, Zarauzko biko lasterketan 5. bukatu genuen unea ere gogoan dut. Lasterketa bereziak dira biak, politak.

Amaitzeko, Oihana Kortazar berriaren aurrean al gaude?
Ez, ez. Oihanaren mailara iristeko lan handia egin behar da. Profesionala da, eta ibilbide ezin hobea du. Egia da gaztea naizela oraindik, eta hobetzeko tartea dudala; hala espero dut behintzat. Baina Oihanaren mailara iristea hitz handiak esatea da. Nire helburua, momentu oro, eta momentuarekin, disfrutatzen jarraitzea da.

“Selekziotik ez didate inongo presio edo marka zehatz bat egiteko esan”

Uxoa, Euskal Herriko selekzioko taldekideekin.

Saiatzearen fruitua

Aitor Irigoien, anaia

Askotan entzun ohi ditugu kirola egiteak dakartzan onurei buruzko aipamenak. Eta, nik uste, egun denok gaudela ados horretan. Etxean, adibidez, hiru anai-arrebok betidanik izan gara kirolzaleak. Eta hau, neurri batean, gurasoei esker ere izan da, beti animatu baikaituzte kirolaz gozatzera. Hasteko, beraz, eskerrak eman nahiko nizkieke. *"Mila esker"* esaldia behar baino gutxiagotan esaten dugula iruditzen baitzait, gertukoenekin bereziki.

Kirola aipatuta, txiki-txikitatik futbolean hamaika ordu eta partidu jokatua naiz. Federatu gisa ere aritu nintzen hainbat urtez, umetako ametsa nolabait betez. Denboraldi batean, gainera, Itziar arrebarekin ere kointziditu nuen Zumaiako Taldean: bera nesken lehen taldean (bixibixi, gol ugari sartuz) eta ni mutilenean (ahal zen moduan defentsa lanetan). Hori bai, orain atzera begira jarrita, futboleko une politenak Merkeko plazan, frontoian eta polikiroldegian bizi izan ditudala esango nuke…

Futbola utzi ostean, berriz, nire kasa korrika hasi nintzen, eta izugarri gustatu zitzaidan: nahi izandakoan eta nahi hainbeste aritzea, konpetentzia gabe kirola egitearen plazera bizitzea, aske sentitzea, gero eta sasoi hobean zaudela nabaritzea… Mundu berri bateko ateak irekitzea bezala…

Ordurako Uxoa arreba ere zertxobait hasia zen korrika. Baina une hartan, ez berak ez beste inork ez genuen pentsatu ere egiten ondoren izan duen bilakaeraren laurdena ere izango zuenik. Ongi oroitzen ditut arrebarekin korrika egindako lehen saio haiek, moilan zehar, erritmo xuabean, tertulian… Biok pixkanaka gero eta korrika gehiago egiten joan ginen, eta lasterketa batzuetan parte hartzen.

Ordutik, amama Jexuxak zenbat aldiz esan ote digun: *"Txoratuta zaudete korri egin behar horrekin…Baina beno, zuei korri ez egiteko esatea eta niri egiteko agintzea, biak berdin…"*. Anekdota politak ere bizi izan ditugu korrika saio horiek guztietan: goitik behera euritan blai ibilitako egunak, Malkorben elurretan aritu ginenekoa, erorketak, bukaerako sprint haiek… Eta 2013ko Azpeitiko Kros Mixtoan egin genuen 2. postua ere, podiumera elkarrekin igoz, une berezi horietako bat izan zen.

Tarte honetan Uxoak egin duen jauzia izugarria, ez sinesteko modukoa izan da. Duela pare bat urte, ezagun batek honakoa bota zidan, anaia zaharraren "orgullo" puntu hori ukitu nahian bezala: *"Laxter haiz arrebari korrika segitu ezinian!"*. Berehala erantzun nion: *"Ba bai, ziurrenik bai… Baina berak asko hobetu duelako iritsi dadila egun hori, eta ez nik maila jaisteagatik"*. Azkenean, biak bete dira: gaur da eguna non arrebak hainbeste hobetu duen, ezin diodala jarraitu, mendi lasterketa luzeetan bereziki.

Lasterketa ugari irabazi ditu jada, mendiko euskal selekzioak fitxatu du, komunikabidetan agertzen hasi da… Baina hau dena ez da bi eguneko kontua izan. Urte asko daramatza gogor saiatzen, eguzki zein euri gogotsu entrenatzen, oztopoak gaindituz etengabe hobetzen… Eta orain, egindako esfortzu guztiaren fruituak jasotzen ari da. Bereziki horixe azpimarratu nahi baitut: Uxoak lortutako guztia bere ahalegin, konstantzia eta lanari esker izan dela. Eta honek izugarrizko meritua, balioa duela iruditzen zait, edozeren konturako arrakasta azkar, erraza eta hutsala modan den garaiotan. Gurasoek beti irakatsi izan digute zerbait lortzeko ahalegindu egin behar dela, lana gogoz eginez. Bizitzak hori horrela dela erakutsi dit behin eta berriz, eta Uxoarena beste adibide argi bat da.

Beraz, lerro hauek baliatuz, bihotz-bihotzez arreba zoriondu nahiko nuke! Eta momentuaz gozatzeko esango nioke… Eta desio bat adierazteko ere baliatuko dut unea: noizbait lasterketa luzeren bat berarekin batera amaitzeko gai izatea. Nik asko hobetzeagatik izan dadila hori, noski, ez Uxoak maila jaisteagatik… 2015eko Saharako desertuko maratoia izan daiteke aukera bat…

"Gurasoek beti irakatsi izan digute zerbait lortzeko ahalegindu egin behar dela, lana gogoz eginez"

] argazki txokoa

Argazkiak:

Artzape aldizkaria.



Antxua eta Arrantzale egunak

Azker urteetan bezala maiatza hasieran antxua eta arrantzale egunak ospatu ziren herrian. Egun bereziak dira Getarian, jakina baita arrantzak duen garrantzia.

Aurten berrikuntza modura, Urrezko Antxua omenaldia Balenciaga Museoan izan zen. Bestalde herrian jai giroa aparta izan zen nahiz eta eguraldiak ez zuen lagundu antxua egunean.

Arrantzale egunean, Getariako Abesbatzak Boga-Boga kanta abestu zuen arrantzaleei egin zitzaien mezan. Momentu hori ikusteko aukera gure Facebook orrialdean duzue. Bideo berezi bat prestatu baitugu arrantzaleei gure omenaldia egiteko.

Auzolanean antolatutako jaiak

Apirilaren 28a egun berezia da Gasteizen. San Prudentzio egunaren jaia ospatzen dute bertan, jai handia. Haraino joan gabe ordea, gurean ere bada izen bereko auzoa, eta noski, hemen ere ospatzen dira santu honen inguruko festak. Baina aurtengoak bereziak izan dira bertakoentzat. Lehenengo aldiz, auzo elkarte edo jai batzorde baten bidez antolatu baitituzte festak; elkarlanean.

"Ez bada ezer egiten, ez da festarik izango"

Inor baino hobeto ezagutzen dira elkar. Inork baino hobeto dakite auzoko ezaugarriak zeintzuk diren; gabeziak eta baliabideak, ezinak eta nahiak. Egutegian azpimarratuta dute apirilaren 28a, eta urtero legez, festak ospatzeko ohitura. Baina, nork antolatzen ditu jaiak? Hain zuzen, aurten sortu berri duten auzo elkarteko bi partaideekin bildu gara auzolanaren garrantziaz eta beharraz hitz egiteko: Ekaitz Estebanekin eta Andrea Hamillekin.

"Ez bada ezer egiten, ez da festarik izango, eta beraz, indarrak ateratzen dira gauzak antolatzeko" azaldu du Ekaitzek. Eta hala da, auzolanean eta elkarlanean antolatu dituzte aurtengo San Prudentzio festak. "Lehen, festak, Begoñak antolatzen zituen, eta hostala itxita egon den 2 urteetan, Xabin Etxekoak arduratu dira: Xabin, Goiatz… eta beno, festak zetozela eta, elkarlanean zerbait egitea adostu genuen" gaineratu du.
Izan ere, San Prudentziok, lurrez, eremu zabala hartzen du, eta jende nahikoa bizi da bertan. "Nire garaian ez zegoen umerik, orain behintzat umeak ikusten dira plazan, eta pozgarria da. Auzoari bizitasuna eman dio etorri den jende berriak" kontatu du Andreak. Hala, jendea bizi dela ikusita, idatzi bat egin eta buzoiz buzoi gutun bat igorri zuten, bilera batera deituz. "Festak, pertsona baten edo familia baten artean antolatu beharrean, guztion arteko zerbait egitea zen ideia" aipatu du Andreak.

"Lehenengo bilera, otsaila hasieran egin genuen, eta jende dezente azaldu zen, 12 bat pertsona; 12 familia edo etxe ezberdinetatik etorritakoak ginen" azaldu du Ekaitzek. Ondoren, 5-6 bat bilera egin dituzte guztira, eta bilera hauen jomuga festak antolatzea izan da, batez ere. "Hasierako helburu zehatza festak antolatzea izan da, baina egia da, beste gai batzuk ere atera direla aurrera begira". Hala ere, oraindik ez dute auzo elkarteari ofizialtasunik aitortu. "Ez dugu horren beharrik ikusten oraingoz, talde bat gara, orain arte festak antolatzeko orduan zegoen antolakuntza ezari aurre egitea zen lehen helburua eta, ikusiko dugu noraino iristen garen" kontatu dute.

Egitura antzekoa, berrikuntzekin = +

"Festak antolatzeko orduan, aurreko urteetako egitura hartu dugu, eta horri begiratuta osatu dugu gehienbat" adierazi du Ekaitzek. Baina, berrikuntzetarako tartea ere izan dute. "Jende gehiago ginenez, ekintza berriak sartuko genituela pentsatu genuen. Adibidez, parrillada. Jon Urkidik komentatu zuen izugarrizko taldea zuela, eta berak ekarriko zuela jendea lan horretarako. Ekipazoa osatu zuen (Andrexito, Txano, Xilbeti, Antonio, eta Jon Urkidi bera), eta izugarrizko parrilladak muntatu dira. Arrakasta handia izan du" gaineratu du.

Gure Txeru dantza taldea, txistulariak, bertsolariak… Adin eta gustu guztietarako festak antolatzea izan dute helburu. "Txistulariek ere, diana jo zuten adibidez". Bestalde, ohikoa diren ekintzak ere izan ziren: ostiralean mus txapelketa, larunbatean ume jolasak, igandean eta San Prudentzio egunez meza…,

Eguraldia lagun izan zuten gehienbat, baina larunbatez izan zuten kaxkarren, eta hain zuzen, umeen eguna izan zen. "Iaz, eskolan maisu izan zen Manexekin hitz egin genuen, psikomotrizidadean aditua da eta prest zegoela esan zigun. Gainera, lehen ere bera etorritakoa da jolasak egitera" azaldu du Andreak. "Umeena geratu zen pixka bat triste eguraldiagatik. Altxorraren bila egitea pentsatuta zuen Manexek, gero amaieran denen artean beste jolas bat egitea, ezkutatzen jolastea…" esan du Ekaitzek. "Manex ideia batekin etorri zen, eta azkenean eguraldiak baldintzatu egin zion. Baina, karpak genituen, eta horri esker beste ekintza batzuk atera ziren aurrera. Guztira, 5 txokotan antolatu genuen tokia: piezak muntatzen, globoekin jolasten, aurpegiak margotzen… eta amaieran txokolatada egin zen" aipatu du Andreak.

Balorazio positiboa + +

Biak bat datoz festen balorazioa egiterakoan. "Izugarrizko festak izan dira, egia esan. Gu behintzat oso gustura gaude, eta antolatzen lagundu dutenak ere bai. Hurrengo urtera begira, jende guztia motibatuta dago" kontatu dute. Horretaz gain, jendearen parte hartzea ere positibotzat jo dute. "Mus txapelketan esaterako, 25 bikotek hartu zuten parte eta ez ziren soilik auzokoak edo getariarrak izan. Oriotik, Aizarnazabaletik… etorritako jendea egon zen" kontatu du Andreak.
"Egia esan kanpaina ederra egin genuen. Izan ere, 80 kartel jarri genituen hainbat tokitan: Zarautzen, Aian, Aizarnazabalen, Getarian… 40 Mus txapelketakoak, eta beste 40 orokorrak" esan du Ekaitzek.

Auzolanaren bidez sortzen da hau guztia. "Gu gara, gu gaude, eta guk egin behar dugu" adierazi dute. "Bakoitzak bere denbora eta aukeraren arabera lagundu du. Adin guztietako jendea elkartu gara, 16tik 50 urte bitartean, gutxi gora behera. Denok ezagutzen gara hemen. Familiarteko harreman eta ezagutza handia dago, eta hori alde dugun ezaugarri bat da" aipatu dute.
Bukatzeko, parrilladak badu istorio berezia. "Hasiera batean sardina jarri nahi zen, baina arazo batzuk tarteko, azkenean ezin izan genuen ekarri. Azken momentuan, oilaskoak erostea pentsatu zen, saiheskiak aurretik enkargatuta genituen eta eskerrak!" kontatu dute barrez.

Aurpegiak margotzen ederki pasa zuten.

Argazkia: San Prudentzio jaietako batzordea.

Izan ere hori baita auzolana: elkarrekiko konfiantza eta laguntza. Urteetan iraun dezala!

Getariako Bertso Eskolakoak auzokide Libe Goenagarekin.

Argazkia: San Prudentzio jaietako batzordea.

Elikadura osasungarria

Gu 5. mailakoak eta 4.ekoak, maiatzaren 6an, Eroskira joan ginen "elikadura osasungarria" tailerra egitera. Han, harrera ona egin ziguten, eta gelatxo batera joan ginen. Iratxek gauza asko esan zizkigun elikadura osasungarriari buruz, adibidez: egunean bost otordu egin behar genituela gutxienez eta denetik jan behar dela. Ez hori bakarrik, lehendabizi Eroskiko produktuen etiketak eta kaxak irakurtzen erakutsi zigun. Bereziki, Eroskiko produktuek semaforoa deitzen den gauza bat dute eta hura aztertzen ere aritu ginen. Semaforo horretan, zenbat azukre, koipe, gatza… duten azaltzen da, eta bere azpian kolorea jartzen dute; berdea bada egokia da, horia azaltzen bada kontuz, eta gorria badu gutxitan hartu.

Ondoren, 6 taldetan banatu ginen beste ekintza bat egiteko. Saski bat eman ziguten eta dendan zehar, nahi genituen 8 produktu hartu behar genituen. Talde bakoitzak, horretarako 20 minutu eduki genituen. Ondoren gelatxora itzuli eta taldeko kide bakoitzak hartutako produktuak piramide batean sailkatu behar zituen. Lehenengo apalean egunero jan behar diren gauzak jarri behar ziren, (esnea, ogia, ura, fruta eta berdura…); bigarrenean, astean behin baino gehiagotan jatea komeni direnak (arraina, oilaskoa, solomoa, garbantzuak…); eta hirugarrenean noizean behin jan behar direnak (pizza, txutxeak, mariskoa, txokolatea, patata frijituak…).

Amaitzeko, hamaiketako berezi bat eskaini ziguten. Frutazko brotxetak: marrubia, platanoa, mandarina eta mahatsez egindakoak. Baita ere, bi bandeja fruta ezberdinekin eta edateko zukuak, "multifrutas" eta laranjazkoa.

Jarduerak bukatu ondoren bakoitzari diploma pertsonalizatua (gure izenarekin) eman ziguten.

Eroskitik atera eta parke batera joan ginen eta ondoren oinez Getariara.

Tailer hau interesgarria izan da guretzat, hainbat gauza ikasi ditugu eta saiatuko gara hemendik aurrera osasuntsu jaten.

ESKERRIK ASKO EROSKIRI, jarraitu horrelako tailerrak antolatzen.

5B maila.

Maiatza infernu, ekain-uztail zeru

Hilabete eta gero berriz ere gure txanda da, gaztetxeko zurrumurruak zabaltzeko txanda gurea da. Uda giroa nabaria da eta gogoz gaude ekintzak kontatzeko eta gurera etortzeko ongi etorria zabaltzeko. Ez al zaude bada asperturik kalean ezer egin gabe? Ez al da iritsi garaia zure errealitatearen artista zu zeu bihurtzea? Gomendio bat, gure ekintzak gure nahiak dira, ekintzen bitartez guk nahi dugun errealitatea eraikitzen dugu, beraz eraiki zuk zurea, zatoz! Ez galdu aukera beraz ikasteko eta ongi pasatzeko.

Maiatza atsotitzak dioen bezala, erdiz hotzak hilik eta erdiz beroak errea. Gaztetxeko tenperatura guztiz beroa izan da, atsotitza beraz kutxan gordeko dugu.

Hasteko antzerki eder batez arituko gara,maiatzak 9an eskaini zen. Ez zineten etorri? Lasai, hurrengoan beste talde bati deituko diogu, egon adi beraz. Korroxin (Ion Martinez) eta Azken (Saioa Royo) izan genituen getariko oholtza gainean, eskolako aretoan zuzen esanda. Aldatzen Laguntzen konpainiak eskainia. *Amets zirkua* obra antzeztu zuten, porrot egin duen zirku bateko bi pailazoren larruan sartu ziren. Bi pailazoen azken emanaldia antzezten dute antzezleak, esperotako arrakasta ez dute izan eta zirkua ixtera beharturik daude, bi pailazoen azken emanaldia izango da beraz antzezpen hau (egoera fikziozkoa da). Egungo egoeraren erreflexu bat dela uste dute Martinezek eta Royok, ez sortzaileen alorrean soilik, alor askotan errealitate bera bizitzen ari delako jendea. Korroxin eta Azken pailazoak egoera zail asko aurkitu dituzte beren emanaldien baitan, eta etsipenak jota daude. Zer egin behar dute pertsonek egoera zailen aurrean? Aurrera jarraitu ala amore eman? Bi pailazoek dilema hau irudikatuko dute. Batak aurrera jarraitu behar du familia bat duelako, eta gainera pentsatzen du aurrera egin behar duela. Ez daki nola, baina aurrera egin behar du. Esperantza irudikatzen du nolabait. Bestea etsipenak jota dago. Zergatik zirkua? Zirkuan dena dago leku berean. Lana, familia eta bizitza. Hurrengo egunean zer egingo dugu? Dena salgai dago. Hori da gogorrena. Pailazoak zirkua galduko dute, etxe gabe eta kale gorriak geratzen den jende asko bezala. Hausnarketa txiki hauekin, zuen txanda da orain. Ez beldurtu, antzezlana umoretsua izan zen!

Kontzertuak ere izan ditugu hilabete honetan. Ezinean eta Enkore taldeak izan genituen ostiral gau batean. Bestalde, *Street boys army* (Getariako Colin Macfaull, Mickey Beaufoy, Steve Burgess, Steve Burce), *Hilkar*, *Pottor* eta *Klitoris* izan genituen protagonista hilabete amaieran. Gau bertan, *Manu eta Latigo dj-ak* ere giroa alaitzen eta berotzen ibili ziren.

Gure aldetik besterik ez, zuentzako ateak irekirik ditugula eta zoriontsuak izan zaiteztela. Atsotitzekin jarraituz beste batek dio, Maiatza infernu, ekain-uztail zeru. Ez ote da zuen maiatza horrelakoa izan? Gurea ez behintzat. Ondo segi!

Getaria
AUTOESKOLA
Herrerieta
23 Behea
Tel: 943 140 301
ORDUTEGI MALGUAK - EUSKARAZ EGITEKO AUKERA

Arrain-Gazitze industria

Hitz hauek oso lotuak daude herriarekin: arraina edo arrantza, gatza edo gazitzea, industria edo lantegiak. Itsasoaren hurbiltasuna, salerosketarako industria, eta lantegiak edo herriaren eraldaketa industriala.

Baina gaur egun non daude guzti honen aztarnak? Gazitze industria lantegiak edo lokalak Getarian, honako kale hauetan behintzat egon izan dira: Magallanes, Kale Nagusia, Txori Tonpe industrialdea, Aldamar, Kai zaharra, General Arnao edo Elkano.

Udal artxiboan jasota dauden irekiera baimenetan oinarriturik, Elkano kaleko Guillermo Andreanori eman zitzaion 1942an gazitze lantegia irekitzeko lehen baimena. Honek ez du esan nahi lehenago egon ez zirenik, baizik eta lehen baimena urte horretan eman zela. XX. mendeko kronologia labur bat osatzeko informazioa ematen du artxiboak, esate baterako:

1906 Gazitze fabrikara joateko oztopoa konpondu beharra.
1910 Atzerritarren gazitze-enpresak zergak ordaindu beharra.
1918 Casa Torreseko markesari obrak egiteko baimena: gazitze fabrikan ur zikinen hoditeria egiteko.
1919 Gazitutako arrainaren kupelak herritik kanpo edo eraikuntza berezi batean gordetzeko agindua
1930 Kofradiara eta gazitze fabriketara ura ematea.
1935 Gazitze fabrikazioak tokiko ekoizleei sortutako kalteei buruzko bilera Mutrikun.

Andreanoren atzetik guzti hauek ere eskuratu zuten baimen hori: Ricardo Errazkin Aizpuru, Ramón Peña, Pedro Lazkano Osa, Pio Gorostiza Galdós, María Aranguren Calvo, Salvador Orlando, Isidro Larrañaga Aranburu, José María Zubizarreta Areizaga, María Alegria Lasa, Julian Ulazia Unanue, D. Miguel Alegria y compañía, Alvaro Blas de Piker, Mazola, Baltasar Cefalo Zizzo, Gorostiaga Hermanos, Pescados Oliveri eta Salanort.
Guztira 19 gazitze gune edo industria. Ez da gutxi!

Zein oroitzapen duzu getariarrok honen gainean? Lokal haiek gogoan al dituzue? Egun ba al dihardute? Han lan egindako inor ezagutzen al duzue? Orduko gora beherak berreskuratu al daitezke? Desagertu ahala nola aldatu dira toki horiek?

(Oraingoan galderak guk egiten ditugu: bidali zuen erantzunak!)

] herriko toponimia / Andres Alberdi

Piepia

Salbatorearen eliz azpiko tunelean dagoen kaperaz ari gara. Kapera hori Pietateko Ama Birjinari eskainia dago. Hortik dator *Piepia* izena, eta, ondorioz, *Piepeko* Ama Birjina esatea ere.

Izenaren bukaeran -*pe* atzizkia ikusteak (Pie-***pe***) pentsaraz dezake zerbaiten azpiko/beheko tokia dela horko hori. Getarian horrelako toki-izen asko dago (Gazteta***pe***, Artza***pe***, Santana***pe***…), baina Pie***pe***aren kasuan ez dago horrelakorik, itxuraz.

Piepia izenaren jatorrian *Piedadea* forma dago, eta, ahozko aldaeran, *Piedadia*. **Piedadia formaren laburdura da *Piepia***.

Hitzaren erdian dago lehenengo aldaketa: *Pie**[dad]**e* > *Pie**[p]**e*. Hor, *d* leherkarien arteko -*a*- bokala isildu egin da eta bi -*d*-horiek -*p*- leherkari ahoskabe bilakatu dira. Normala da hori ahozko euskaran (bati**k b**at > [bati**p**at]…).

Bukaerako -*ea* >-*ia* (Piep**e**a > Piep**i**a) ere gertaera fonetiko arrunta da, -a artikuluaren eraginez. Halaxe egiten dugu, esate baterako, ***kale*** hitzarekin ere: *kalea* > [kal**i**a], *kalean* > [kal**i**an]… esaten dugu; baina, artikulurik ezean, bukaerako -e ez da aldatzen: *kal**e**ko*, *kal**e**tik*… Gertaera bera dago gure gaurko hitzean: batzuetan, -i- esaten dugu (*Piep**i**a*, *Piep**i**an*…); beste batzuetan, -e- (*Piep**e**ko*, *Piep**e**tik*).

] literatur txokoa / Izaskun Larrañaga

Jesusen haurtzaroa

Idazlea: John Maxwell Coetzee (Hego Afrika, 1940)

Itzultzailea: Aritz Gorrotxategi

Argitaletxea: Meetok

Urtea: 2013

Itzulpen batekin natorkizue hilabete honetan, J.M. Coetzeeren Jesusen haurtzaroa lanarekin. Idazle honek dituen hainbat lanetatik, hau eta Lotsaizuna (Disgrace) bakarrik itzuli dira gure hizkuntzara. Idazle honek 2003. urteko Literatur Nobel Saria irabazi zuen.

Istorioa Novilla herrian kokatuta dago. Protagonistak David haurra eta Simon, adinean sartutako gizona, dira. Hauek Belstar herritik alde egin dute eta, bidean topatu ostean, Novilla herrian bizi berri bati ekitea erabakitzen dute. Herri berri honetako jendearen laguntzaz, ez da oso gogorra izango hauen egokitzapena: Simoni lan bat eta bizilekua topatzen lagunduko diote eta honek ezagutuko duen Ines izeneko emakumea arduratuko da David zaintzeaz. Iragana ahazteko helburuaz joan dira Novillara eta, herritarren laguntzaz azkar lortuko duten euren helburua.

Lan nahiko filosofikoa dela esan daiteke bertan agertzen diren pasarteetan giza izaerari buruzko hausnarketa sakonak aurkitzen ditugulako. Baina, hausnarketa hauek ez dakarte istorioaren haria moztea.

Gizakia hilik dago

Gizakia hilik dago. Arraroa izan daiteke baieztapen hau, egiazkoa ziurrenik. Modernitatearen baitan subjektua aurkitu ohi dugu ezagutza epistemologikorako abiapuntu bezala, ezagutzaren dominatzaile eta arkitekto, errealitatearen jabe, errealitatearen zentroan kokatua izan da subjektua, gu geuk ere horrela uste dugu. Descartes matematikoak zioen bezala; *"Ego cogito ergo sum"* (Pentsatzen dut, beraz banaiz), ziur naiz existitzen naizela ni. Hau ukatu beharrean ikusten naiz (ez existitzen naizela) ,subjektuak ez baitu errealitatea kontrolatzen, subjektua historia zehatz baten zati da, ez da subjektu eraikitzaile bat ordea. Eraikia izan den subjektu bat baizik. Nola izan da eraikia? Indarrean egon diren egituren bitartez. Ondorioz, subjektua ustezko egoera pribilegiatutik at kanporatzera beharturik nago, den hori plazaratzera.

Aipaturiko egoera pribilegiatu honek, gizakia zentroan jarri ostean izatea alde batera utzi zuen eta entitateak konkistatzen hasi zen, objektuak (errealitatea) bereganatzen hasi zen teknika kapitalisten bidez, errealitatea moldatzen joan izan zen gizakia subjektuaren teknikaren bitartez (Guzti hau, botere ahalmena zutenek egin zuten). Zentzu honetan subjektua ez da Sartrek (existentzialista) zioen moduan askea zeinak beren *praxiaren* bitartez historia eraikitzen duen. Guztiz aurkakoa, egituren baitan dugu subjektu bat zeina orain ez den subjektu konkistatzaile bat (ez inoiz, behintzat modernitatetik aurrera), subjektu konkistatua baizik. Infinitu determinazioen bitartez dago kateaturik. Gizaki askearen ideia kimera hutsa da, ez dugu inongo botererik errealitatea eraikitzerako orduan.

Aipaturiko egituren baitan ezaugarri garrantzitsu bat aurkitu daiteke, boterearen nozioa zehazki. Boterea eta arrazoia bat datoz Frantziar iraultzaz geroztik, burgesiaren garaipenetik gaur egun arte. Adorno eta Horkheimer pentsalariek baieztatu bezala, arrazoi instrumentala (naturaren dominatzailea, gizakiaren artisaua…) jainkotiarra bihurtua izan da. Interpreta dezaket beraz, arrazoia argien mendeaz gerora dominazio tresna moduan erabilia izan dela, gizakia dominatzeko tresna hutsa eta makabro bat bihurtuz. Zentzu hobbesiar (mendebaldeko filosofia politikoaren aitzindarietako bat) batean arrazoia Leviatan (Feniziar mitologiako itsas munstroa, Biblian agertzen da. Gizarteen hitzarmenen betearazlea Hobbes pentsalalari ingelesaren lanean) batean bihurtu da, ordena inposatzen, gizakia kontrolatzen, moldeatzen eta instrumentu bihurtzen duen botere instituzional zein kulturala, hegemonia zentzurik zabal eta zurrunenean.

Horrenbestez, boterea egia inposatzeko boterea da. Egia ez al da bat ordea? Zergatik inposatzen dute egia? Gaur egun komunikabideak botere baten kontrolpean daude, komunikabideak norbaiten esku daude zeinak subjektuen kontzientzia artisaua moduan zizelkatzen dituen bere nahi eta gustuetara. Estatu Batuetako inperioaren kolonizazioa komunikabideen inperio bat da, zeinak hartzaileak diren subjektuen kontzientzia eraikitzen dituzten. Milioika hartzaileko inperio global bat eraikitzen ari dira, zeinean egia bat eraikitzen ari den AEB-ko boterea. Merkatu librea basatiaren ezinbestekotasuna, merkatuaren hegemonia kulturala ematen ari da, gure baloreak zizelkatuak dira, subjektua ez da askea, egituren gatibu da. Mundua arrazoiaz moldatzen ari dira, errealitatea jada tresna hutsa bihurtzen ari da, egituraren banakoen identitateak galtzen doaz, arrazoi zehatz batek du boterea.

Aurrekoaz baliaturik esan dezaket botereak egia eraikitzen duela. Egia ez da existitzen agerpen zentzuan, Nietzsche pentsalariak modu ederrean esan bezala, gertakizunak ez daude, interpretazioak baizik. Egiaren interpretazio honetaz baliaturik, egia boterearekin lotzeko barne grina dut; boterea egiaren interpretazio zehatz bat inposatzeko tresna razional bat da, kasu honetan razionalitate instrumental bat zeinak garapen teknologikoa eta ekonomikoa legitimatzen duen. Botereak ehunka aldiz errepikatuko du bere egia, zuk, hartzailea zaren heinean, sinisten duzun bitartean. Artaldeko ardia zara, egituraren subjektu determinatua. Subjektuaren subjektibotasuna lurrean dago altxa ezinik, egituren zati homogeneo eta zurrunak zara.

Ondorioz, boterea, talde zehatz batek bere egiaren interpretazio bat inposatzeko ahalmena litzateke, gaur egun komunikabideak duten boterea, AEB eta europar kolonizatzaileen boterea. Egia boterea da, gaur egungo boterearen paradigma dirua litzateke, boterea diruaren mesedeetarako. Arrazoia instrumentala errealitatea boterearen nahietara moldatzeko, irrazionala (merkatu libretik at) den oro ezabatuz, lehertuz. Gainontzeko egia guztiak suntsituz. Egiaren kontzeptu baten eraikiak izan garen subjektuak gara, boterearen produktu erabilgarriak, ezagutza baldintzatuaren hartzaileak.

Onartu behar da ezagutzen duen subjektuak, ezagutzen dituen objektuak eta ezagutza moduak razionalitate-botere dikotomiaren determinazio eta aldaketa historikoen menean daudela. Honenbestez, subjektuaren ezagutza ekintzak ez du jakite bat sortzen, arrazoi-botere mugimenduak eraikitzen dute jakintza, formen determinazioak dira, egia zehatz bat, ezagutzaren domeinu posiblea den heinean. Zure ezagutza ekintza ez da askea, botere erlazio baten ondorio itxi bat da, beraz ez amestu errealitatean, botere erlazio baten esklabo baitzara. Botereak jakitea sortzen du, jakitea eta boterea zuzenki erlazionaturik daudelako, ez da ezagutzarik existitzen botere erlaziorik gabe. Ezagutza, botere domeinu baten produktu bat da, produktu ankerra eta nabari ezin bat.

elan euskadi
ONGD - GGKE

II. Jardunaldiak:

Ikerketa Feministarako Metodologia; giza eskubideen aldeko tresnak eta aplikazioa

Eguna:
2014ko ekainaren 19an eta 20an.

Lekua:
Donostian. Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Gradu Aretoan. Ibaetako campusa, UPV/EHU, Tolosako Hiribidea 70.

Unibertsitatean eta gizarte erankundeetan bide luzea geratzen da oraindik feminismoaren proposamen epistemologiko-metodologikoen ezagutza eta aplikazioari dagokionez. Hau horrela izanda, Jardunaldi hauek ikerketa feministarako gaitasunak sustatzea dute helburu, zehazki hiru tresna metodologiko landuz: azterketa intersekzionala, narratiben eraikuntza eta diskurtsoaren azterketa. Baita, emakumeen giza eskubideen esparru ezberdinetan egin diren zenbait ikerketetan tresna horien aplikazioa nolakoa izan den aztertzea ere.

Jardunaldietan hitzaldiak, aldibereko tailerrak eta esperientzien mahai bat antolatu ditugu. Ikerketa feministaren arloko espezialistek parte hartuko dute (*Bárbara Biglia, Raquel Lucas Platero, Itziar Gandarias, Nagore García, Jokin Azpiazu, Ochy Curiel, Amandine Fulchiron, Elena Grau, Carmen Gregorio Gil, Mari Luz Esteban*). Haiekin batera, proposatutako ikerketa-tresnak landuko ditugu lehenengo egunean, eta tresna horiek feminismotik aplikatzeko adibideak, berriz, bigarrenean.

Hartzaileak:
- Unibertsitateko komunitatea: UPV/EHUko eta Estatuko beste unibertsitateetako irakasleak, ikertzaileak eta graduko eta graduondoko ikasleak.
- Mugimendu feministen eta giza eskubideen arloko erakundeak, GKEak, erakunde publikoetako langileak, ikerketa eta prestakuntza zentroak eta interesa daukaten beste pertsona batzuk.

Antolamendua:
Jardunaldi hauek Hegoa-Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua-k eta SIMReF-Ikerkuntza Feministarako Metodologia Diziplina Anitzeko Mintegia-k antolatuak dira, UPV/EHUko UFI Hegoa-Estudios de Desarrollo eta Berdintasun Zuzendaritzaren laguntzaz, baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz ere.

] ekaina eta uztaila hasierako agenda

] Omenaldia

[Ekainaren 1a, igandea]
ZAHARREN OMENALDIA
Kalejira, Meza Nagusia, Musika Bandak eta Abesbatzak eskainitako kontzertua, bazkaria, dantzaldia…
Antolatzailea:
Guraso Elkartea.

] Txapelketa

[Ekainaren 6a, ostirala]
GETARIAKO
IX. MUS TXAPELKETA
Artzaperen alde!!!
Adina: 18 urtetik gorakoak.
Lekua: Berdura Plaza.
Ordua: 21:30ean.
Izen-ematea: 20:00etatik aurrera Berdura plazan (20 €bikoteko).
Antolatzailea: Getariako Udala eta Artzape aldizkaria.

] Antzerkia

[Ekainaren 7a, larunbata]
"ANDAR CON TACONES SIN HACER RUIDO" (REBELDÍAS MÍNIMAS danza-teatro // Ignacio Repetto & Anna Mezz) eta "Piropéame" (Susana Cintado & Anna Mezz).
Ordua: 22:30ean.
Lekua: Harralde taberna.
Antolatzailea: Harritan Blai.

] Kirola

[Ekainaren 8a, igandea]
GURE TXEKUKO XXXVI. ESKUZ PILOTAREN FINALAK.
Ordua: 12:00etan.
Lekua: Frontoia.
Mailak: Txikiak, benjaminak, alebinak.

SALBATORE DEUNA XVI. PILOTA TXAPELKETA Federatuentzat (kadeteak, jubenilak eta 22 urtetik beherakoak).
Antolatzailea: Gure Txeru.

[Uztailaen 5a, larunbata]
"FLOREN MEMORIALA" IV. FUTBITO TXAPELKETAren FINALA.

[UDA 2014]
BELA, PIRAGUISMOA, SURFA, SUP, URAZPIKO JARDUERAK, IGERIKETA, FRONTENIS, PATINAJEA, SPINING, ZUMBA.
Izen-ematea eta informazioa:
Udaletxean eta Liburutegian.

] Jaiak

[Ekainaren 14a, larunbata]
IKASTURTE BUKAERAKO JAIA: Jaialdia, jokoak, tailerrak eta bazkaria.
Antolatzailea: Zanbuka Guraso Elkartea.

[Ekainaren 19a,osteguna]
MUSIKA-ESKOLAKO IKASLEEN IKASTURTE BUKAERAKO JAIALDIA.
Ordua:18:30ean.
Lekua: Berdura plaza.

] San Juan

[Ekainaren 24a, asteartea]
"SAN JUAN" FESTAK: Balenziaga kaleko jaiak.

] Dantza

[Ekainaren15a, igandea]
URRETXUN DANTZARI TXIKI EGUNA.
Getariako dantzariak bertan egongo dira.
Antolatzailea: Gure Txeru.

] Ibilaldia

Ekaineko irteera:
BIZKAIKO KOSTA: MURUETA-BAKIO.

] Hitzaldia

[Ekainaren19a, osteguna]
HERRITARREN OINARRIZKO ERRENTA, Ander Rodriguez Lejarza diputatuaren eskutik.
Ordua: 19:00etan.
Lekua: Udal aretoa.
Antolatzailea: Eskubide Sozialen Karta.

] Musika

[Ekainaren 28a, larunbata]
EIO Euskadiko Ikasleen Orkestraren KONTZERTUA.
Ordua: 20:00etan.
Lekua: Balenciaga Museoa.
Antolatzailea:
Getariako Udala.

]Jardunaldiak

[Ekainaren 10a, igandea]
Hitzaldia: "Egia, justizia eta erreparazioa"
Hizlaria: Pako Etxeberria.
Ondoren, hizketaldia eta hizlariarekin solasaldia.

[Ekainaren 12a,osteguna]
"Hablan los ojos filma"ren emanaldia.
Ordua:19:00etan.
Ondoren, Gorka Espìau filmako zuzendariaen hitzak eta solasaldia.

[Ekainaren 14a, larunbata]
"Getaria eta elkarbizitza". Getariako esperientziak. Mahai-ingurua, partekatzea eta ondorioak.
Ordua:10.30ean.
Jardunaldien lekua:
Alondegia.
Izena emateko: udaletxean (tel. 943 89 60 24) edo udala@getaria.org.

] Balenciaga museoa

(A) Cristóbal Balenciaga. Legatu denboragabea. Bilduma III.
(B) Balenciagaren Artea. Museo del Traje-ko bilduma. 2014.04.11-2015.04.05.
(C) Errenazimendu *chica*: Moda diseinuak eta argazkiak. 2014.05.09-2014.07.20.

JARDUERAK

[Ekainaren 21a, larunbata]
- Sortze-diseinu laborategia.
Ordutegia: 10:00-14:00 eta 16:00-19:00.
Prezioa: 35€.

[Ekainak 15 eta 29]
- Estanpazioa kimono baten gainean.Helduentzako tailerrak.
Ordutegia: 10:30-13:30.
Prezioa: 25€.

[Ekainaren 22a, igandea]
- Museoa familian. (Euskaraz) Familientzako bisita-tailerrak
Ordutegia: 11:00-13:00 .
Prezioa: 5€ umeek eta 7€ helduek.

UDAKO IKASTAROAK

Irakaslea: Elisabeth Roulleau. www.elisabethroulleau.com-
Hizkunta: Ingelera.

[Uztailaren 4tik 6ra]
-Brodatu tradizionalen ikastaroa.
1. saioa - Ostirala, uztailak 4 16:00-20:00.
2. saioa - Larunbata, uztailak 5. 10:00-14:00 eta 15:30-19:30.
3. saioa – Igandea, uztailak 6. 10:00-14:00 eta 15:30-17:30.
Prezioa:120€.

[Uztailaren 7tik 11ra]
- Goi mailako joskintzako brodatuen ikastaroa.
Ordutegia: 10:00-14:00 eta
1. saioa – Astelehena, uztailak 7.
2. saioa – Asteartea, uztailak 8.
3. saioa – Asteazkena, uztailak 9
4. saioa – Osteguna, uztailak 10
5. saioa – Ostirala, uztailak 11.
Prezioa:120€.
*Bi ikastaroetarako matrikularen prezioa: 275 €. CBMren lagunek % 10eko beherapena izango dute prezioan.
* Plaza mugatuak eta izena ematea derrigorrezkoa da.
Informazio gehiago eta izen-emateak:
Tel. 943 00 88 40.
didaktika@cristobalbalenciagamuseoa.com

] Azoka

[Ekainaren 7a, larunbata]
LANDARE ETA ARTISAU AZOKA **frontoian**.
*** Bertan haurrei zuzenduTako tailerra egongo da.
Ordutegia: 10:00 -14:30era.

]hari tartian / Aritz Iribar

Hari tartian Cristobal Balenciaga Museoan

Antxoa eguna gai nagusi zelarik, maiatzaren lehen asteburuan, Cristobal Balenciaga Museoan "Ni ere jostuna, gaur sare konpontzailea" tailerra antolatu zuen Getariako Udalak.

Tailerra bi ataletan banatu genuen. Lehendabizi sare konpontzaile eskolakoak izan genituen sarearen alde tradizionala herriko haurrei erakusten. Bertan, orratza ezberdinak betetzen aritu ziren, sare ezberdinak ikusten, eta, josteko oinarrizko pausu batzuk ere esplikatu zituzten.

Behin alde tradizionala ikusita, gaur egungo modernizaziora jo genuen. Sarez eginiko mantoi moduko bana banatu genien haurrei eta horiek apaintzen aritu ginen koloretazko hari eta zinta ezberdinekin.

Benetan oso lan politak eta bereziak atera ziren, agian hauetako haurren bat herriko "Balenciaga" berria ote?

Gaglo gaztelekua

Ordutegia: ostirala, 17:00-20:00, larunbata, 16:30-19:45 eta igandea, 16:30-20:00.

KZgunea

Ekaineko ordutegia:
Ikasturtea bukatu arte17:00etatik 20:00etara, ondoren goizez.
Tutorea egongo da: ekainak 11 eta 25, 09:00 -13:00.
Lekua: Kultur Etxeko lehen solairua.

zorion agurrak

Izaro Uzin
Ekainak 7

Zorionak!!!
Egun zoragarria
pasa dezazula.
Muxu
handi bana
lan talderen
partez.

Norbait zoriondu edo agurtu nahi izanez gero, argazkia bere testutxo-arekin Txeruko postontzian utzi edo eta artzape@topagunea.com-era bidali. Gogoratu! bazkideok doan daukazue eta bazkide ez zaretenok 4 € ordaindu beharko dituzue argazki bakoitzagatik.

ODOL - EMATEA	FULDAIN
ekainak 19	FARMAZIA-ren
19:00 - 21:00	zaintza
Osasun zentroan	egunak:
Antolatzailea: Txeru	ekainak 1 eta 30

Telefono interesgarriak

Udal bulegoa 943 896 024
Faxa 943 140 190
e-mail: *udala@getaria.org*
Kiroldegia 943 140 432
Kirol-portua 943 580 959
Taxiak
Javier 607 720 242
Carlos 607 403 498
Udaltzaingoa 943 896 146
Liburutegia 943 896 147
Anbulatorioa 943 140 653
Botika 943 140 441
Herri Eskola.....943 140 729
SOSdeiak 117
Kofradia 943 140 200

Euskal Jai egunean egizu txotx euskararen alde!

Goizean zehar frontoian
txotx eta pintxo goxoak.

Antolatzailea: Artzape Euskara Elkartea.